

## Merkataritza elektronikoa duten Euskal AEko establezimenduek salmenta guztien %41,4 eta erosketak guztien %36,2 egin dute kanal horren bidez 2017an

**Nagusi izan da beste enpresa batzuekiko salerostea (B2B), salmenta elektronikoen %78,4**

41.400 inguru izan dira saleroste elektronikoa egiten duten establezimenduak 2017an Euskal AEn, orotarakoaren %25,1, eta zenbatetsi da ezen bide horren bidez egiten duten erosketak izan direla guztien %36,2, eta salmentak guztien %41,4, zeina den errekor bat serie historikoan bere osoan hala erosketetan nola salmentetan, EUSTATEN datuen arabera.

Oro har, merkataritza elektronikoa Euskal AEn aurreko urtearen aldean zifra ekonomikoak handitzen jarraitzen du; merkataritza elektronikoa bidezko salmentei doakienez, Euskal AEko enpresen kasuan, %12,6ko igoera gertatu da, eta %10,2koa sistema beraren bidez eginiko erosketei doakienez.

Horrek ekarri du izatea 2017an negozio-bolumena 17.274,1 milioi eurokoa egin diren salmenta elektronikoei doakienez eta 12.758,8 milioi eurokoa erosketei doakienez. Guztia sarean zehar egin edo bestelako sistema elektronikoa batzuen bitartez, hala nola posta elektronikoa edo datu elektronikoen trukaketa (EDI eta beste sare batzuk).

### 1. taula: Merkataritza elektronikoa bidez egindako erosketak eta salmentak, lurraldearen eta enplegu-geruzaren arabera

	Erosketak (*)			Salmentak (*)		
	2016	2017	Δ %	2016	2017	Δ %
Euskal AE	11.581,3	12.758,8	10,2	15.341,0	17.274,1	12,6
Lurralde historikoa						
Araba/Álava	2.046,8	2.311,6	12,9	5.046,9	5.423,7	7,5
Bizkaia	5.853,8	6.432,7	9,9	5.463,8	6.368,3	16,6
Gipuzkoa	3.680,7	4.014,5	9,1	4.830,3	5.482,1	13,5
Enplegu-geruza						
0 - 9	3.863,6	3.949,7	2,2	2.798,7	3.044,4	8,8
≥ 10	7.717,7	8.809,1	14,1	12.542,3	14.229,7	13,5

(\*) Euroak, milioikotan

**Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak**

Lurraldeetan Bizkaia nabarmendu da salmenta elektronikoen, %16,6ko gehikuntzarekin, eta ondoren Gipuzkoa (%13,5eko gehikuntza) eta Araba (%7,5eko gehikuntza) daude. Azken lurralde honetan gertatu da igoerarik handiena erosketak elektronikoen, %12,9ko

gehikuntza aurreko urtearen aldean, eta ondoren Bizkaia (%9,9ko gehikuntza) eta Gipuzkoa (%9,1ekoa) daude.

Lurralde bakoitzak duen pisua kontua hartuta, hiruren artean aski antzera daude banatuak salmenta elektronikoa: Bizkaian da ehunekorik handiena, Komunitate Autonomoaren gutzirakoaren %36,9rekin; Gipuzkoan eta Araban %31,7 eta %31,4 dira ehunekoak, hurrenez hurren. Erosketetan, aldiz, Bizkaiak du 2017an guztizko erosketen %50,4, eta Gipuzkoak eta Arabak %31,5 eta % 18,1, hurrenez hurren.

Establezimenduen tamaina kontuan hartuta, 10 enplegatu edo gehiagokoetan da kopuru ekonomiko gehien trukutzen merkataritza elektronikoa, guztizkoaren %82,4rekin salmentetan eta %69,0rekin erosketetan.

Halaber, merkataritza elektronikoa parte hartzen duten enpresen ehunekoa 2017an %25,1 izan da, portzentajezko 0,9 puntu gutxiago aurreko urtean baino. Jaitsiera hori gertatu da portzentajezko puntu bat gutxitu delako ehunekoa elektronikoki erosten duten enpresena (enpresen %23,0 dira egun) eta, era berean, portzentajezko 0,3 puntu gehitu direlako salmenta elektronikoa egiten dituzten enpresak (guztizkoaren %6,8). Orobat, antzeman daiteke ezen, nahiz eta bide elektronikoen bitartez erosten duten enpresak saltzen dutenak baino anitzez gehiago diren, zifra ekonomikoetan gehiago direla salmenta elektronikoa (17,3 mila milioi euro) erosketak (12,8 mila milioi) baino.

## 2. taula: Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen bilakaera %

	Establezimenduak guztira									
	2001	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Salerosketa elektronikoa	3,0	10,5	15,1	17,3	19,7	21,6	24,8	26,4	26,0	25,1
Erosketak	2,7	9,6	14,2	16,1	18,0	19,7	23,1	23,9	24,0	23,0
Salmentak	0,4	1,9	3,9	4,1	4,6	5,2	6,0	6,5	6,5	6,8
Erosketen gaineko (*)	9,6	15,5	28,1	30,8	33,7	29,4	30,6	31,3	33,3	36,2
Salmenten gaineko (*)	9,9	24,6	38,6	39,3	36,6	35,9	38,9	36,8	35,1	41,4
	<b>10 langile edo gehiago</b>									
Salerosketa elektronikoa	6,4	19,5	23,1	24,9	27,7	27,5	28,8	30,0	29,7	29,0
Erosketak	5,1	17,3	20,3	21,4	23,6	23,4	25,0	25,3	25,8	25,1
Salmentak	1,8	5,1	8,5	9,8	10,4	10,0	10,8	11,4	11,9	12,6
Erosketen gaineko (*)	4,6	10,3	24,6	30,8	33,7	27,0	28,3	31,0	30,7	32,4
Salmenten gaineko (*)	12,7	19,4	38,4	40,9	42,8	36,2	37,8	42,6	42,1	43,2

(\*) Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, erosketa eta salmenta guztien gaineko erosketa eta salmenta elektronikoen batez besteko %


### Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Zifra horiek aldatu egiten dira enpresen tamainari erreparatuz. Halatan, 10 enplegatu edo gehiagokoetan, %29,0k egiten dute saleroste elektronikoa, portzentajezko 0,7 puntu gutxiago aurreko urtearen aldean. Segmentu horretan ere anitzez gehiago dira erosketa elektronikoa egiten dituztenak, %25,1 baitira, eta pisu txikiagoa dute salmenta elektronikoa egiten dituztenak, %12,6. Hala ere, erosten dutenak portzentajezko 0,7 puntu jaitsi dira, eta saltzen dutenak, aldiz, 0,7 puntu ere igotzen dira.

Erosketa elektronikoa egin diren bitartekoari doakionez, guztizko kopuru ekonomikoaren %50,3 burutu da posta elektronikoz (e-posta), %31,8 EDIren eta beste sare batzuen bidez eta gainerako %17,9a web-orri bidez. Era berean, salmenta guztien %43,0 burutu da EDIren

eta beste sare batzuen bitartez; %30,1 web-orri bidez, 'app' bidez (aplikazioak) edo Interneteko salmenta-atarien bidez; eta %26,9 posta elektronikoaren bitartez.


**1. grafikoa: 2017ko salmenta elektronikoak, erabilitako bitartekoaren arabera (%)**



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Gogoan edukita zein bezero-motari zuzendu zaizkion 2017an merkataritza elektronikoaren salmentak, gehienak, bitarteko elektronikoez fakturaturiko guztizkoaren %78,4, beste enpresa batzuek hartu dituzte (B2B deritzon merkataritza), %19,9 kontsumitzaile partikularrek (B2C) eta gainerako %1,7a beste bezero-mota batzuen artean banatu da, hala nola Administrazio Publikoak (B2G).

**2. grafikoa: 2017ko salmenten helburua, bezero-motaren arabera (%)**



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

**Informazio gehiagorako:**

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística  
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz  
Prensa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62